# Iritzi Generoak

2019-2020



www.fppt.info


EGUNA
JEL

Aberrija abende barik, ezta ezer.
Ele bako errija ezta ezer.
Elie irakurri ta idatzi barik, ezin bixi lei.
Euzkerea, ba, ezin bixi izango da,
euzkeraz idazti ta irakurri
egiten ezpadogu.

Lgo. urtia | 1'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17' gn. | Saneurrija: 15 eunen

# EMEN GARA!!

# ZER-ESANAK

EUZKO-EMAKUME MAITIA...

## Gurutzea, Sabin, Euzko-Ikurriña . . . iru adore - iturburu

GURUTZEAN

## Gure lendakarijak itz egin dausku

"Unerik latzenetan errijak barriztau ta berpiztu egiten dira. - Urte barri zorijontxua ixango dogun ustia dot. - Geure ixaera ta jokaeria ezagutuaz merezi dauan arreria egingo dautse beste laterrijak Euzkadi'ri"

## Geure idazliak

Udalaren erabagija

## Basurto'ko Gexotegija, Euzko - Jaurlaritzari eskeñi yako

## Azkatasuna..!

## "Kirikiño" gomutan degu

## Egunon

Ezin aztu

## Euzkeltzale gartsu genduzanak

## Eguna'k

urte barri on eta zorijontsu bat opa dautse bere idazle ta irakurle gustijei

Gaur, eguberdijan

## Euzko - Eresbatza'ren jotaldija

## Gure ametsa bete degu

*Eguna* egunkariaren azala, editoriala barne.



# 2. GAIA: Editoriala

2.1. Definizioa

2.2. Aurrekari historikoak

2.3. Editorial motak

2.4. Ezaugarriak

2.5. Egitura

2.6. Funtzioak

2.7. Editorialistak



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- ## 2.1. Definizioa

  ***Garrantzi berezia duen gertakari bat azaldu, baloratu eta epaitzen duen sinadurarik gabeko artikulua da. Egunkari bakoitzaren jarrera ideologikoa islatzen duen iritzia da.***

***José Luis Martínez Albertos***



- Hortaz:

1. Kazetaren ahotsa da.
2. Ez du sinadurarik.
3. Gertakaria labur azaldu, interpretatu eta bere epaia ematen du.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- **2.2. Aurrekari historikoak**

- Katharine Graham-en (1917-2001) –*The Washington Post*– iritziz, hasieran alderdi politikoen ahotsa ziren egunkariak.
- 1835ean, baina, James Gordon Bennett-ek *The New York Herald* kazetaren editoreak, bere egunkariak ez zuela alderdi politikorik babestuko adierazi zuen,
- Egunkari askok bere egin zuten printzipio hori eta enpresari handien ahots bilakatu ziren: Joseph Pulitzer, William Randolph Hearst...



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala




**William Randolph Hearst (1863-1951).**

www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala



**Katharine Graham (1917-2001)**

# 2. GAIA: Editoriala

- Hego Euskal Herrian, berriz, alde nabarmenak daude. Testuinguru politikoaren ondorioz, egunkariek lotura estua dute alderdiekin:

  -GARAk ezker abertzalearekin. Eta, DEIAk eta NOTICIAS taldeak, aldiz, EAJrekin.

  -VOCENTO taldea, ordea, enpresa bat da. Ezin esan alderdi jakin baten interesak defendatzen dituenik. Baina bere ideologia du –kontserbadorea eta Espainiako batasunaren aldekoa da-.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- Berria egunkariak ez du editorialik.
- *Egunkari zabala eta independentea izateko sortu zen, euskal komunitateko sentsibilitate guztiak kontuan hartzekotan sortu ere. Ezaugarri horiek bermatu eta pluraltasunaren alde egiteko konpromisoa du* (Estilo liburua).
- Ikuspegi aniztasuna eta bereizkeriarik gabeko tratamendua ditu xede.
- Ideologikoki, ezker abertzaletik hurbil dago.




www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- **2.3. Motak**

**Maynard W. Brown** eta **George Fox Mott**:

(Luis Núñez Ladevéze)

**1. Editorial argitzailea**

Ez da iritzi zuzenik ondorioztatzen.

-*Azaldu eta interpretatu egiten du*.

**2. Tesi edo iritzidun editoriala**

Defenditzen edo erasotzen den jarrera argi adierazten da.

-*Argudiatzeaz gain, konpromiso bat eskatzen zaio irakurleari*.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- **2.3. Editorial motak**

**Raúl Rivadeneira Prada:**

**1. Adierazpenezko editoriala**

Irudi objektibo bat aurkezten du.

**2. Azalpenezko editoriala**

Izaera kasik pedagogikoa du. Argudioen bidez gertakari baten garrantzia ezartzen du.

**3. Editorial oldarkorra**

Jarrera ideologiko doktrinarioak darabiltza aldebakarreko azalpen bat oinarri harturik.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- **4. Editorial kritikoa**

  Iritzi publikoaren izenean epaitzen du eta inpartzial gisa aurkezten du bere burua.

**5. Editorial apologetikoa**

Propaganda izaera du eta gobernuaren aldeko organo ofizialista izan ohi da.

**6. Editorial ohartarazlea**

Akuilatu egiten du, arriskuen inguruan ohartarazi, adostasunera deitu. Paternalista da.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

**7. Editorial iragarlea**

Egoerak analizatu ostean, emaitzak diagnostikatzera ausartzen da.

Hala eta guztiz ere, gehienetan, editorialek estilo ezberdinak uztartzen dituzten euren baitan.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

- **2.4. Editorialaren ezaugarriak**

**2.4.1. Gaiak**

-Gaurkotasun handiko gaiak dira nagusi.

Bereziki, politika eta ekonomiarekin lotutako gaiak.

-Alta, azken sasoian, eguneroko informazioarekin zerikusirik duten gizarte, kultur nahiz kirol arloko gaiak ere ageri dira.

-Editorialetan lantzen diren gaiak ez dira berriak beti. Baina, halakoetan, zera eskaintzen da:

ñabardura berriak / ikuspegi berriak



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

## 2.4.2. Estiloa

-Estilo neurtua, hizkera inpertsonala eta jarrera tinkoa.

-Erredaktorearen `ni´-ak ez du lekurik. Kazetaren iritzia islatzen baitu editorialak. Are gehiago, iritzi hori argi adierazi behar du.

-Ideiak adierazteko orduan erredaktoreak ez du hain askatasun handia. Editoriala kazetaren ahotsa denez gero, hartara egokitu behar du testua.

-Kazetak pentsatzen duena esateko konpromisoa du eta irakurleak orientazio baten beharra du.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

## 2.5. Egitura

Titulazioa:

ASKEA (edukiarekin bat etortzeaz gain, erakargarria behar du izan).
LABURRA (hiru, lau, bost hitz).
Editorial batzuetan AZPITITULU bat ere idatzi ohi da.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

Testua:

1) EDITORIALAREN ABIAPUNTUA: gaia labur azaldu behar da. Ez dugu xehetasunetan lardaskatu behar, albisteak ematen baitu horren berri.

GAIA eta BERE TESTUINGURUA azaldu behar dira (lehen paragrafoa).

2) INTERPRETAZIOA: gaiaren inguruan kazetak berak duen IRITZIA eman, ARGUDIOAK eskainiz (datuak, aurrekariak, balizko ondorioak...)

3) EPAIA: paragrafo labur batean editorialaren ARDATZA nabarmendu eta EPAIA eman. Irtenbide bat ematen zaio eztabaidagai den auziari.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

## 2.6. Funtzioak

Funtzio ezberdinak bete ditzake editorialak. Baina, beti ere, gaurkotasunarekin loturik dago.

Funtzio nagusiak:

1. Gertakariak azaldu: eguneko gertakarien garrantzia.
2. Aurrekariak eskaini: testuinguru historikoa.
3. Etorkizunari buruz aurreikuspenak egin.
4. Iritzia eman.

Kontzientzia publikoaren zaintzaile dira editorialistak eta iritzi etikoak eskaintzen dituzte. Editorialistaren zeregina: gertaerak argitu, arazo konplexuak analizatu eta auzi ilunei argia ematea.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

## 2.7. Editorialistak

### 2.7.1. Talde editoriala

Eredu estatubatuarrak fisikoki banatzen ditu albiste saila eta orrialde editorialaren saila.

-Albiste eta iritzi saileko erredaktoreek banaturik lan egiten dute.

-Sail editorialak berezko zuzendaria du eta editorialista talde bat.

-Normalean kazetaren jabearen menpe egon ohi da sail editoriala.

- Eredu europarrak ez du banaketa hain irmorik.

  -Albiste eta iritzi saileko erredaktoreak ez daude zurrun banatuta eta elkarri laguntzen diote.

  -Sail editoriala eta albiste saila zuzendariaren menpe daude. Eta, honek, iritzi buruaren rola jokatzen duen kazetari baten babesa eduki lezake.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

## 2.7. Editorialistak

### 2.7.2. Kontseilu edo batzorde editoriala

*Egunkari handi eta garrantzitsuenek mahai baten inguruan biltzen dituzte egunero editorialistak, Iritzi Saileko burua eta zuzendaria.

- Helburua: eguneko gertakariei buruz iritziak elkartrukatzea.
- Editoriala idazten duen editorialistak aintzat hartu behar du erabakitakoa.

*Erresuma Batuan eta AEBetan, kazeta talde handiek talde editorial bakarra dute egunkari guztientzat.
Eta, hortaz, editorial berbera argitaratzen da.

Bi xede:

1. Ideologikoa: iritzi bakarra eskaintzea.
2. Ekonomikoa: soldata bakarra kobratzen duen espezialista taldea.



www.fppt.info

# 2. GAIA: Editoriala

## 2.7. Editorialistak

### 2.7.3. Editorialistaren prestakuntza

- Gaurkotasun handiko gertakarien berri izan behar du editorialistak iritzia zorrotz eta taxuz plazaratzeko. Erredakzioko arduradunen babesa du.
- Editorialistak ezagutza berezitua du alor jakin batean: ekonomia, politika,nazioartea, kultura...
- Informazio iturriekin ere harreman zuzena izan ohi du.

-Iritzi publikoaren sortzaile diren heinean, interes pertsonaletik aldentzen dituzten arau etikoak aintzat hartu behar lituzkete editorialistek. Gertakarien analisi orekatu bat eskaintzea da asmoa.



www.fppt.info

# 3. GAIA:
# Glosa

**Kontzeptua**

Editorialarekin harreman estua du. Aditu batzuen aburuz (Bartolomé Mostaza), editorial mota bat da glosa.

Gertakari bati buruzko iruzkin txiki bat da glosa. Ohar baten modukoa da. Ezberdintasuna: informatzeaz gain, baloratu eta epaitu egiten du.

Editorialak auzi nagusiak lantzen dituen bitartean, glosak hain garrantzitsuak ez diren gaiak jorratzen ditu bi paragrafotan edo bakar batean.



www.fppt.info

# 3. GAIA:
# Glosa

**Ezaugarri nagusiak:** laburtasuna eta intentzioa.

*Iritzi testu labur anonimoak izan ohi dira.

-Editorialak legez, glosak ez du sinadurarik izaten normalean. Kasu batzutan, berriz, inizialak edo ezizenak erabiltzen dira.

-Editorialista talde oso bat dute itzalean, ordea.

* Estiloa editorialarena baino askeagoa eta ausartagoa da.

-Esaldi laburrak, paragrafo motzak

-Hizkera xehea eta argia

-Sarri ironiaz zipriztindua



www.fppt.info

# 3. GAIA:
# Glosa

* Egitura ez da editorialarena bezain zurruna: sinplea, eskematikoa kasik.



www.fppt.info